



Carlos Alonso

Dela intrigazkoa, dela umorezkoa, dela beldurrezkoa..., literaturak haurra izugarri erakartzen du. Zergatik? Bada, aukera ematen diolako bere bizitza eta sentimenduak ulertzeko eta bere nahi psikoafektiboak asetzeko. Hau da, literaturak haurraren “mamu psikologiko” guztiak (beldurrak, gatazka afektiboak, behar moralak—zer dagoen ongi eta gaizki—...) agertoki baten bidez aurrean jartzzen dizkio, bera konturatu gabe, modu sinboliko batean. Fikzioak edo ipuinak eta haurraren maila psikoafektiboak bat egiten dute: fantasia, sormena, pentsamendu magikoa, jolasa eta abar daude beregan, “eta hala balitz?” galdera dute beren buruetan. Horregatik, haurraren barne munduak eta haur-literaturak konektatu egiten dute, hizkuntza berean mintzo baitira. Zentzu honetan, ipuinak ez dio haurraren buruari

ezta arrazoiari “hitz egiten”, bere “bihotzari” baizik.

Horregatik, haur- eta gazte-literaturak, sentimenduak eta balioak igorri nahi baditu, “bihotz” hori “ukitu” behar du, zirrarratu, liluratu, hau da, lehenik eta behin, ipuinarekin, literaturarekin, hunkitu behar da; bizipen afektibo bat izan behar du. Literatura horrek “bai bihotzarekin, bai buruarekin” bidaia bat egitea bermatu behar dio.

Galdera izan daiteke, zertarako egin behar du haurrak edo gazteak bidaia hori literaturaren bidez? Euren “mamu psikologiko” horiek “uxatzeko, ulertzeko edo “gainditzen” laguntzeko? Edo ta irakaspenaren bidez, baliotan hezteko, bizitzan zer dagoen ongi eta zer dagoen gaizki irakasteko? Edo bidaia hori egiteko eta besterik ez, bizipen hori sentitzeko “soilik”, beste helburu psikolo-

gikorik, didaktiko-pedagogikorik edo moralik bilatu gabe? Zentzu horretan, nire ustez, literaturak ez lituzke derrigorrez helburu horiek izan behar, ezta zentzu utilitaristik ere. Kalitatezko literaturak berezkoa du haur eta gazteen “bihotzak” hunkitzeko gaitasuna; hots, bereak diren baliabideen bitartez (estetika, estilistika, iradokitzeko gaitasuna eta abar) lortzen du irakurleengana iristeko ahalmena.

Horregatik, haur- eta gazte-literatura ez genuke “erabili” behar euren gatazka psikologikoei aurre egiteko, heziketa emozionala lantzeko edo balioak igortzeko. Ez genuke baliatu behar “erreze-ta” moduan haurraren zailtasunak gainditzeko. Ipuin edo liburu horrek zenbat eta ageriko helburu didaktiko-pedagogiko gehiago izan, are eta eragin terapeutiko

edo hezitzaile murriztagoa izango du; izan ere, haur edo gaztea berehala ohartuko da irakurgaiaren asmoaz. Bestela esanda, adin honetako irakurleek auto-laguntzeko liburuak baztertu egiten dituzte.

Esanak esanda, haur- eta gazte-literatura altxor preziatua da haurraren “mina” sendatzeko, sentimenduetan hezteko edo bizitzaren alde onak eta txarrak islatzeko. Hori kalitatezko literaturak egiten du; zehazki, literatura hori idazten duen lumaren jabeak egiten du.

